

Spallanzani eta espermatozoideak

Erdi Aroan, jendearen ugalketa misteriozko gaia zen.

Teoria anitz bazen, gehienetan Aristoteles grekoaren edo Jesu Kristo ondoko II. mendeko Galeno medikuaren idatzietan oinarrituak.

1677an mikroskopioa asmatu zen eta horri esker espermatozoideak aurkitu ziren. Haien formarengatik *animalcula* izena eman zitzaien. Uste zuten bakoitza izaki ñimiño bat zela, emaztearen gorputzean garatzeko prest.

Baina urte bat berantago ohartu ziren landare-zorri emeak ernaldtu gabe eman dezakeela bizia. Emaztearen gorputzean kukutua ote zen, beraz, izaki ñimiñoa? Teoria berri bat sortu zen orduan: *ovismoa*. Eztabaida bortitza izan zen *animalculisten* eta *ovisten* artean.

1780an, testuinguru horretan zituen esperientzia erabakigarriak egin Lazaro Spallanzani Paviako unibertsitateko irakasleak.

Igel ar batzuei galtza irazgaitzak jantzi zizkien eta igel ar horiek igel emeen artean ezarri zituen. Arrek emeak estali zituzten galtzak soinean. Baina estalduraren ondorioak pentsatzekoa zen bezalakoak izan ziren.

Ez zen deus atera arroltzeetatik espermatozoideek ez baitzuten bihi bat busti; galtzetan, haatik, espermatozoide xortak ikus zitezkeen.

Igel emeen arroltzeak bildu zituen Spallanzanik eta bi taldetan bereizi: lehen taldeko arroltzeak ziren bezala utzi zituen, eta zenbait egunen buruan usteldu ziren. Bigarren taldeko arroltzeei igel arren hazia gehitu zien. Hauek aratxeburu bihurtu ziren. Spallanzanik lehenbiziko *in vitro* ernalketa orduan egin zuen.

Haren irudiko, frogatu zuen espermatozoideak beharrezkoak direla ugalketa gerta dadin.

Bizkitartean, Spallanzani apeza *ovista* gelditu zen, segur baitzen amaren obuluaren barnean enbrioia jadanik moldatua zela eta osoa. Haren arabera, espermak ugalketa bultzatzen zuen, akuilagailu gisa, besterik gabe.

Mende baten buruan Ertwig alemanak frogatu zuen espermatozoidearen burua eta obozitoa bateratzen direla zelula berri baten eratzeko.